

RUGBYA

**Bledisloe Cup lehiaketa gaur erabakiko da**

K. AIDUNTZIN. / DONOSTIA

Zeelanda Berriak eta Australiak gaur erabakiko dute Australiako Sydney, zein den Ozeaniako onena, Bledisloe Cup irabazten duenak ohore hori izaten baitu. Joan den larunbatean All Blacksek irabazi zuten 28-16. Aurtengo araudi berria dela eta, gaurko norgehiagokan nagusitzen dena izango da Kopa horretako irabazlea, partidu bakarrera jokatzera erabaki baitute. Hortaz, munduko txapelkunordeak astebetetz bakarrik izango dira Koparen jabe, gaur galtzen badute.

Joan den larunbatean jokatu zuten Aucklanden, 50.000 ikusleren aurrean elkarren kontrako 99. norgehiagoka. Gaurkoarekin beraz, 100. partidua jokatuko dute. Wallabiesak eraberriturik zelairatu ziren Eden Parken eta norgehiagoka irabaztekoan egon ziren. Aukerak hobeto aprobeatzeagatik irabazi zuten etxekoek.

All Blackseko aurrelari gehiegito galdu zuten bilketetan. Alboko sakeetan gaizki aritu ziren 2. zatian, eta atzelariak ez zuten arriskurik sortu zati honetako 30 minututan. Jeff Wilson hegala sekulako partidua jokatu zuen. Lomuk 74an eginiko entseian, jokaldi ikusgarria egin zuen. Berarekin batera, Osborne eta Kronfeld izan ziren onenak. Une erabakigarrietan buruak kale egin ziren australiarrei.

**GETXO CANOEREN AURKA**

Espainiako Liga irailaren lehen asteko da. Euskal Herriko ordezkari bakarra Xerox Getxo izango da, eta zozketa egin ondoren, Madrillgo Canoeren aurka jokatuko du lehen jardunaldian. Joan-etorriko txapelketa izango da, 18 jardunaldirekin, eta azken partidua, martxoaren 3an jokatuko da. Aurtengo txapelketan, 10 talde bakarrik lehiatuko dira.

SASKIBALOIA

**Taugres Baskonia hasi da lanean**


Espero ez bazen ere, O'Sullivan herenegun heldu zen Gasteizera

**Taugres Baskonia Gasteizko saskibaloitaldeak atzo ekin zion denboraldi-aurreari, eta igerri zituen Ramon Rivas puerforricoraren eta Kenny Green estatubatuarraren hutsuneak. Goizean jokalariek osasun azterkerta pasatu eta arratsaldean proba fisikoa egin zuten.**

I. BIAIN / GASTEIZ

Baskoniari bukatu zaio oporraldia. Atzo hasi eta aurrerantzean, denboraldia hasi bitartean, denboraldi-aurreari dagozkion beharrei ekin beharko die. Gasteizko taldea osatzen duten jokalariek gehienak atzo hasi zituzten betebeharrak, goizean izandako osasun azterketarekin. Guillermo Taugreseko medikuak azterketaren ondoren zera adierazi zuen: «Jokalariek egoera onean daude. Agian, batek edo bestek kiloren bat kendu beharko du, baina ez dago inongo arazorik». Badirudi, gainera, Velimir Perasovic kroaziarrari eta Marcelo Nicolari joan den denboraldian izandako lesioak guztiz osatu zaizkiela. Atzo goizean Kenny Green eta Ramon Rivas ezin izan ziren egon, lehena arazo pertsonalagatik, eta bigarrena Puerto Ricoko selekzioarekin Atlantarako Joko Olimpikoen aurrekoa jokatzen ari delako.

Baina agian atzo ikusmin



Nicolak arazo fisikorik gabe ekin dio denboraldi-aurreari. OLALDE

handiena jaso zuen jokalaria Dan O'Sullivan izan zen, Baskoniak fitxatu berri duen estatubatuarra. Oraindik ez zela etorriko uste bazen ere, herenegun heldu zen Gasteizera bi metro eta hamar zentimetro inguru dituen mutila. Sendagilearen azterketa pasatu ondoren, bere egoera bikaina dela adierazi zuen mediku gasteiztarrek, «nahiz eta giharreak ez dituen gehiegi markatuta, oso planta ona du». Hala izango da, O'Sullivanek berak ere antzera samar definitu baitu bere burua: «Oso jokalaria gogorra naiz, atsegin dut taldean jokatzera.

Abiadura ere badut, eta, noski, errebotean oso ondo defenditzen naiz». Hala izan bedi.

Dan O'Sullivanek ezezik, David Salak eta Miguel Angel Reyesek ere atzo aurkeztu zituzten beren buruak Gasteizen. Atzoko ekitaldiaren ondoren, Taugres Baskonia Fadura (Bizkaia) kontzentratuko da astelehenean, eta aurrerantzean hainbat adiskidantza norghegiagoka jokatuko ditu.

Bestalde, aipatu behar da Santi Abad jokalariek herenegun sinatu zuela Real Madrideren denboraldi baterako.

**TXIRRINDULARITZA**

**Zortzi talde izango dira gaur Zamudion**

RAMON BASALDUA / BILBO

Zortzi taldetako txirrindulariek hartuko dute parte gaur Zamudio-Zamudio lasterketaren bosgarren ekitaldian. Arratsaldeko hiruretan abiatuko da tropela Zamudiotik eta partehartzaileek lau bira eman beharko dizkiote hogeita hamasei kilometroko zirkuituari. Horren ostean, txirrindulariek beste 125 kilometro beteko dituzte, antolatzaileek prestatutako beste zirkuitu bati hiru bira emanaz. Bakoitzean Andra Mariko gaina igo beharko dute.

Helmugarako 27 kilometro inguru geratzen direla erabakiko da lasterketa, Viveroko gaina igotzean. Antolatzaileek ez zuten helmugan tropelaren esprintik ikusi nahi eta aipatutako lehen mailako mendatea sartu dute ibilbidean.

Kelme taldeko Angel Edo izan ezik, Zamudio-Zamudio lasterketa honetako gainerako txirrindulariak ez dira Frantziako Tourrean aritu. Beraz, ez dago fabrikatzaileek prestatutako beste zirkuitu bati hiru bira emanaz. Bakoitzean Andra Mariko gaina igo beharko dute.

laria, Zamudioko lasterketaren irteeran izango da. Nolanahi ere, ez dirudi helmugara heltzeko gauza izango denik, oraindik ere minduta baitu besoa.

**INDURAIN GAUR MOSKUN**

Miguel Indurainek Kremlinoko Itzulian hartuko du parte gaur Errusiako hiriburuan. Proba hau 5,1 kilometroko zirkuitu batean izango da eta guztira 102 kilometro egin beharko dituzte korrituko duten 58 txirrindulariek. Proba hau Frantziako Tourreko Elkarteak antolatzen du Errusian txirrindularitza profesionala promozionatzeko. Horregatik, Miguel Indurainekin batera, besteak beste Chiappucci, Virenque eta Armstrong ere izango dira Moskun.

Proba hau telebistatik ikusi ahal izango da, La2etik, arratsaldeko 15.10etatik aurrera. Tony Rominger ez da Plaza Gorrian izango.

LABURREAN

**SUKIA eta Perezek dominak lortu dituzte European**

Iker Sukia eta Ivan Perez Euskal Herriko bi atleta juniorrek domina bana lortu zuten atzo, Hungarian jokatzeko ari den Europako txapelketan. Ivan Perezek zilarrezko domina lortu zuen 10 mila metroetako lasterketan, eta Iker Sukiak berriz, brontzezko pisuko proban. Bi atleta gazte hauek jaso dituzte Espainiako selekzioaren lehen bi dominak, uztailaren 27tik 30era Hungariako Nyregyhazan jokatzeko ari den txapelketa honetan.

**COLIN McRAE lehen postuan Zeelanda Berriko Rallyan**

Colin McRae eskoziarra Zeelanda Berriko lider jarri da bigarren etapa amaitu ondoren. Subaru gidariak 12 segunduko alde du sailkapenean bigarren postuan dagoen Didier Auriol frantziarrarekin (Toyota Celica). Hirugarren, Auriolen taldekidea den Schawrtz dago, 29 segundura.

**HILLEK denbora onena Alemaniako Sari Nagusian**

Damon Hill Williams-Renaultko gidari britainiarrak denbora onena lortu du Alemaniako F1eko Sari Nagusian. Hillek 1.44.932ko denbora egin zuen bere itzuli azkarrean, 374 milareneko ateraz bere taldekidea den Coulthardi, eta 573 milareneko Schumacher alemaniarrari.

**LUR gaineko sokatira saioa gaur Azpeitian**

Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketaren barnean bi jardunaldi jokatuko dira asteburu honetan. Gaur 17.00etan 560 eta 520 kiloko taldeak lehiatuko dira Azpeitian (Gipuzkoa). 560 kilotan Iparralde, Torrekolanda, Goierri, Gaztedi, Nuarbe eta Haitzappe nor baino nor ariko dira. 520 kilotan nesken lau taldek hartuko dute parte: Torrekolanda, Goierri, Gaztedi eta Mutriku. Bihar beste saio bat egingo da Fadura (Getxo) goizeko 11tan.

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**  
 Irigariki honen bitartez, ekainean hautaprobak gairatu dituzten eta beren espedienteko notagatik eta aurreinskripzioan egindako aukerengatik EHUko ikastegiren batean onartuak izan diren UBI/IEE/LOGSEko ikasle guztiei honako hau jakinarazi gura zaie: matrikula-epaia, uztailaren 28ra arte zabalik egongo zena, datorren abuztuaren 4ra arte luzatu dela.  
 Letoa, 1995eko uztailak 27  
 Pedro Luis Arias Ergueta  
 Akademi Antolakuntzarako errektorordea